

## Tipi-tapa Itsasondon korrika



Zaintza ereduak aldaketak  
Alkateari elkarrizketa  
Elkarrizketa: Marcela Averio

**A**urtengo udaberrian hauteskondeek hartu dute protagonismoa, Espainiako hauteskundeak igaro bezain pronto, udal hauteskundeak ditugu ateko; eta errealitatea da gehientsuenak gaiarekin gogaitu samar egongo garela.

Baina gure aldizkarian ere herriko aktualitateak pisu nabaria duenez, ez genuen galdu nahi orain arte alkate izan dugun Axier Garrori elkarrizketa egiteko aukera. Izan ere, agintaldi honetan kargua uzten du, eta alkate izateren esperientziaren inguruak galdetu nahi dizkiogu.

Bat badoa, eta beste norbait ere etorriko zaigu. Berriak ere, zer esana eta, batez ere, zer egina izango du aurrerantzean. Ahal duen hobe egin dezala, eta animoak berarentzat hemendik.

Gaia aldatuz, Korrikak ere gure herriko kaleak zeharkatu ditu, bi urteroko hitzorduari huts egin gabe, eta euskararen festa eta lekukoa Euskal Herriko txoko guztietara zabalduz. Eguneroko lekukoa hartzea orain herritar guztien esku dago, herriko txoko, etxe, parke, lagunarte, familia, lantoki eta gainerako zereginetan ez dezagun euskara bazterrean utzi, eta egunero erabil dezagun, beti baita euskararen Korrika.

Gainerako edukiei dagokienez, kultur agenda opa-roaren errepasoa, herriko eragile ezberdinen ekintza eta hausnarketak, udaleko berrietan azken hiru hileroan udaletxean jasotakoa eta beste hainbat kontu aurkitu ahal izango dituzue. Gure gomendioa: beti bezala, poliki-poliki, aldizkariaren orrialdeetan barneratu; eta, gustuko baduzu, gozatu. ■



# Agurra



## Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04. **Haurreskola**
- 05. **Eskola**
- 06. **Gazteak**
- 07. **Jubilatuak**
- 08. **Gaztelekua**
- 09-11. **Elkarrizketa:** Axier Garro
- 12-13. **Informatika**
- 14. **Elkarrizketa:** Marcela Averio
- 15-17. **Hemeroteka**
- 18. **Natura / Errezeta**
- 19. **Euskararen atala**
- 20. **Oharrak / Kultur agenda**

## Sarrerako bertsoak

Doinua: Agur sagar beltzaran

Haur eskolatik dator albiste bitxia: aitak umeen bila asko doaz ia, rolak berdintzea da eskari bizia ez da kapritxoa ta ez da gutizia jarrera kontua da, hori da guzua.

Korrikalari txikiz arnas euskalduna, Ongizatea eta harrera eguna, Herri eguna berriz bidean deguna, informatikan hamar programen bilduma gomendagarri gisan aurkeztu zaiguna.

Elkarrizketa arloan eremu zabala: bat Asier Garrori alkate bezala, bere karguko berri plazara dezala; bestea Marcelari kanpotar atala jakinaren gainean ipini gaitzala.

Bestelako albistez agenda beteta, eguneroko kontuz osa dira eta; azken saila gaurkoan da hemeroteka mendia ta ziklokros lokatz txapelketa... sukaldean jarri da albisteen meta.

# Udaleko berriak

**Hauek izan dira 2019ko lehen hiruhilean udalean landu diren gai eta espediente garrantzitsuenak.**



## UDAL BATZARRAK

Apirilak 1eko udal bilkura

2018an udaleko lanpostuen balorazioa egitea erabaki zen, orain arte inoiz egin gabe zegoelako. Prozesua LKS-enpresak egin du, eta apirilak 1eko batzarrean behin betiko onartu da. Orain langileei jakinaraztea eta praktikan jartzea gelditzen da. Ez da gauzatu aldaketa nabarmenik onartutako balorazioan, eta neurri batean esan daiteke, kaltetutako inor ez dela izango.

Bestalde, etxer etxeko zerbitzuaren kontratazioko epealdia amaitzera doala-eta, lizitazio espediente berria tramitean jartzea ere erabaki da, zerbitzu hori hurrengo lau urteetan emango duen enpresa aukeratzeko.

2017-2018 epealdian, Urkiako aterpean, gunea bat egokitu da hainbat taldek erabiltzeko. Aterpea Urkiko Elkartearen laguntzarekin egokitu da.

2018ko urteko aurrekontuaren likidazioaren espedientearen informazioa eman da, emaitza honako hau izan da:

2018ko abenduak 31an dagoena	307.810,75 €
Kobratzeko dagoena	283.518,69 €
Ordaintzeko dagoena	135.083,74 €
Gerakina	456.245,70 €

## DIRULAGUNTZAK:

- Eskatutakoak
  - Langabeziaren dagoen langile bat bost hilabetetan kontratatzeko.
  - Herri eskolan berogailu sistema berria jartzeko.
  - Lizardiko herri bidean obrak egiteko.
  - Euskara sustatzeko proiektuak gauzatzeko.
  - Goiko Kaleko eskola etxeko teilatuan obrak egiteko.
  - Partaidetza sustatzeko.
  - Hondakinen arloan, biohondakinen bilketari jarraipena egiteko eta baliabide material berriak erosteko.
- Jasotakoak:
  - Murumendiko Lotura Eremu eta Korridoreko jarraitutasun ekologikoa hobetzeko ekimenak izeneko proiektua gauzatzeko, 35.720 €ko dirulaguntza lortu da.
  - Eskolako Agenda 21 programa gauzatzeko 612 €.

## ALKATE DEKRETUAK

- Urtarrileko fakturen zerrenda onartu da 11.537,97 €
- Otsaileko fakturen zerrenda onartu da 18.787,34 €
- Martxoko fakturen zerrenda onartu da 46.450,53 €
- Udaletxeko kultur gunea eta lokalak erabiltzeko herriko elkarte, partikular eta eragileen partetik 18 eskari izan dira.
- 2018ko laugarren hiruhileko ur errolda onartu da 12.991,96 €ko zenbatekoarekin.
- 2019ko Ibilgailuen gaineko erroldaren zenbatekoa, 59.056,58 €koa, onartu da.
- 2019ko lehen lauhilekoko zabor bilketako errolda onartu da 15.888,52 €ko zenbatekoarekin.
- Obra baimen nagusiak tramitatu dira: bat, guztira.
- Obra txikien baimenak tramitatu dira: lau, guztira.
- Zenbait lur sail erosteko espedienteak onartu dira. Onartutako gastua: 6.185 €
- Hutsik dauden eta %50eko gainordaina izango duten etxebizitzaren zerrenda onartu da.
- Gizarte larrialdietarako sei espediente onartu dira.
- Hirilurren balioaren gaineko lau espediente tramitatu dira.
- Itsasondoko biohondakinen kudeaketa martxan jartzeko, bizilagunen parte-hartzea ezinbestekoa izan dela pentsatuta, konposta sistema berria 2018an parte hartzen hasi ziren bizilagunei, saritzeko asmoz, dirulaguntzak ematea erabaki da. Dagoeneko erabakitako dirulaguntza horiek ordaindu dira.
- Maddi Alberdik udaletxean zuen dedikazioari baja emateko eskaria egin zuen, eta onartu egin zen.
- Hiru bizilagunek aurkeztutako IBI baimenen kontzesioei baja emateko eskariak onartu dira.
- Udal langileei soldatak %2,25ean igotzea erabaki da.
- Udal tasetan laguntzak emateko hiru espediente erabaki dira.
- 2019ko lehen seihilekoan gazteekin aritzeko hiru begirale kontratatzea erabaki da.
- Udal eraikinetako garbitzaile postuak betetzeko egin dako lehiaketa-oposaketaren ondorioz bi pertsona kontratatu dira.
- Lizardiko bidea berritzeko obrak esleitu dira, eta lanak amaituta daude.
- Aldundiko kontratazio departamentuak proposatutako posta espedienteia atxikitzea erabaki da.
- Hilerrian kontzesioak emateko bi espediente onartu dira.
- Eraikinen ikuskaritza teknikoaren bi espediente tramitatu dira.
- Baratze ekologikoak ustiatzeko kontzesioa lortzeko deialdia egin da. ■



## Aiten presentzia areagotuz

**P**asa zen martxoaren 8a, Emakume Langilearen Eguna, eta guk ere haurreskolatik, badugu gai honen inguruan gure aztarnatxoaz uzteko gogoaz, irudi maskulinoaren eta femeninoaren rolen inguruan hausnarketa batzuk eginda.

Urte askoan, aitaren rola etxeko ekonomiarik lotua egon da familian; hau da, aita lanera joaten zen bizitzeko behar zen dirua lortzeko; eta ama, berriz, haurren zaintza eta etxeko lanetarako ardura hartzen zen (familia tradizionalan gertatzen zen hori). Gaur egun, emakume askok ez dute etxe barruan soilik egiten lan; etxetik kanpo ere lan egiten dute, alegia. Ondorioz, bikotea emakume eta gizon banak osatzen duten kasuan, haurren zaintza eta etxeko lanetarako ardura bien artean partekatzea ekarri du egoera horrek.

Psikologo askok diote aitaren presentziak onura ekartzen diola umeari, bai emozionalki, baita fisikoki ere. Izan ere, haurrak munduarekiko duen segurtasuna eta konfiantza sendotzen du. Horretarako, ezinbestekoa izango da haurren heziketa eta zaintza parte hartzea.

Haurrekin erlazio afektiboa txiki-txikitatik landu behar da, eta gurasoen aportazioak oso umetatik barneratzen baditu, haurrak bere buruarikiko irudia eta autoestimua oinarria segurua eraikiko du.

Bestalde, egoera honek gurasoen arteko komunikazioa sustatzea eta erlazioaren koherentzia lantzea eskatzen du. Talde lanean trebatzeko bide bat izango da. Haurrak komunikazioa eta elkarlanean balore hauek jasotzeko aukera izango luke, eta zailtasunen aurrean egokiago erantzuteko aukera ere bai, errespetuan oinarritutako heziketa jasotzeko aukera izan duelako.

Gure haurreskolan ere, azken aldian, aldaketak sumatu ditugu ildo horretan: garai batean amaren presentzia handiagoa zen; baina, aiten inplikazioak ere gora egin du nabarmen haurren bila etortzean, antolamenduari buruzko talde bileretan eta haurri buruzko bakarkako bileretan.

Oraindik lan handia dago egiteko haurren heziketa eta zaintza partekatua kontzientziazioan eta konkistan. Gai honen inguruan elkarriketa ugari eta hausnarketa sakonak egin beharko ditugu, bai gizonen, bai emakumeen, benetako aldaketaren oinarri sendoak nahi badiugu.

Pausorik pauso bagoaz!  
... bidea, ekinez egina... ■



## Ika ika ika, hemen dator **KORRIKA!**


**B**erriz ere hemen dator bi urtez behin euskararen alde, Euskal Herri osoan zehar, baita munduko beste txoko askotan ere, egiten den ekimen indartsu eta alaia: badator KORRIKA!

Aurten, gure herritik oso goiz pasa zen, eta egun berean iritsi zen Gasteizera!

Guk eskolan, ekintza hauek prestatu genituen:

1. Egunero-egunero, KORRIKA non zebilen jakiteko, eskola kanpoan jarri genuen mapa batean ibilbidea jarraitu zen.
2. Jolastordutan KORRIKako abestiak jarri genituen, eta zer urtekoak ziren asmatu behar izan genuen.
3. KORRIKako petoak margotu ondoren, KORRIKA TXIKIKO ibilbidea erabakiko genuen.
4. KORRIKA TXIKIA egin genuen.

EGIN KLIK! ■



## Gaztelekua eta kulturgunea

Udaberriaren etorrerarekin batera hemen gaude gaztelekuko eta kulturguneko gazte eta nerabeak. Hilabete hauetan barrena ekintza eta dinamika berriak praktikan jartzen hasi gara. Horietako bat, bi hilabetez behin, gaztelekuko kideek herriari begira antolatzen duten arratsalde berezia. Egun honetan, herriko haurrei deialdia luzatzen zaie guztiok elkarrekin arratsalde berezia pasatzeko. Ekintza hau, ez da soilik jokoez osaturiko solasaldia, nerabeek haurrei zuzenduriko arratsaldea baizik. Horien artean jolas kooperatiboak, paratxuta, aurpegi margoketak eta abar egiten dituzte.

Honetaz gain, urte hasierarekin batera kulturgunea deitzen diogun gunea martxan jarri dugu besta eta seigarren mailakoei zuzenduta, nahiz eta, beste haur batzuk ere parte hartuko duten momentu jakinetan. Gune honek gaztelekuko enpresari bera du, hau da, ostiral arratsaldeetan dago irekita, 17:00etatik 20:00etara.



Guzti honen helburu nagusia da, herriko baliabideak erabilia, mugimendu honetan Itsasondoko etorkizuneko oinarri izango diren gazteak formatu eta saretzeko modua egitea.

Dagoeneko ikasturte amaierari begira gaude eta ekainean udari hasiera emateko sorpresa batzuk antolatzen ari gara. Izango duzue gure berri! ■



# Jubilatuak ez dira gelditzen

**U**rteroko zita dugu jubilatuoak sagardotegira egiten duguna. Aurtengoa Gaztañagara antolatu dugu, eta gure asmoa Errioxara eta kostaldera ere irteera bana egitea da. ■



**B**estetik, Maiatzaren 23an, arratsaldean, Goierriko jubilatuen ibilaldia egingo dugu. Itsasondotik abiatu eta Aramara egingo dugu itzulia, berriz ere herrian bukatzeko. Tartean, indarrak hartzeko mokadutxoia izango dugu, eta amaieran herri bakoitzari oroigarri bana banatuko zaio.

Jubilatuen ibilaldi hau elkarlanean antolatuko da, eta laguntza eskertuko dugu kruzeak zaindu, merienda banatu eta halakoetarako.

Aldez aurretik, herritarren borondatea eskertuz, agurtzen gara. ■



# Herri eguna bueltan dator...

**E**ta ilusio handiz, gainera! Hainbat urtetan geldirik egon ondoren, berriro ere martxan jartzeko asmoz, hainbat adinetako Itsasondoko gazte talde bat elkartu, eta prestaketa lanetan hasiak gara jadanik.

Egitaraua gehiegi aurreratuko ez badizuegu ere, jakinarazi nahi dizuegu ekainaren 15ean izango dela, eta arratsaldetik hasiko garela. Denetariko ekintzak izango ditugu, jolasetatik hasi eta goizaldeko kontzertuetara arte; eta, tartean, afaltzeko aukera ere izango dugu.

Gure asmoa, Gaztete inguruko espazioa berreskuratu eta hari erabilera ematea da, betiko herriguneko txokoetatik harago joanez. Horregatik, bertan kokatuko dugu Herri Eguna, gaztetean.

Urte batzuez Herri Eguna antolatu gabe egon denez, eta honen berrantolaketarekin hasi garenez, ez dugu oinarri ekonomikoa handirik; eta, horregatik, zozketak nahiz zapiak prestatu ditugu. Laster egongo dira salgai ohiko lekuetan, beraz, animatu eta lagundu egun hau antolatzen, zuen ekarpenaren laguntzarekin.

Ekainaren 15ean ikusiko dugu elkar! ■



**Itsasondoko Gazte Taldea**





# Axier Garro

**Itsasondoko alkatea**

*2015ean hasitako agintaldiari amaiera ere heldu zaio, eta horren inguruko hausnarketa egiteko, herritarrei aukera eman zaie alkateari galderak egiteko. Galdera eta iritzi asko jaso ditugu, eta espazio mugatua dugunez, ezin izan ditugu guztiak erantzun. Horregatik, jakinarazi nahi dizuegu, horrelako aukeretara itxaron beharrik izan gabe, baduzuela aukera udal taldearekin harremanetan jartzeko udalera zuzenean joanda. Gainera, bide berriak ere aztertzen ari ara komunikazioa errazteko.*

Bitartean, galdera hauei erantzuten saiatuko gara:

**Azken agintaldian kaleko argi guztiak aldatu ditu udalak. Zein da balantzea? Puntu ilunak geratzen dira oraindik, argi gehiago ipini daitezke?**

2015ean hasi ginen herriguneko argiteri publikoa led faroletara aldatzen, sentsore bidezko sistema jarrita. Horren inguruan egiten dugun balantzea positiboa da, gutxi gorabehera %75 aurrezten baita kontsumitzen diren KWetan, baita dirutan ere.

CO2 isurketak ere gutxitu egin dira, eta puntu ilunak asko hobetu dira, hala dio egin zen azterketak. Hala ere, beti dago zer hobetua; adibidez, San Juan auzokoa 2019an aldatu da, beraz, oraindik ere hobekuntzak egin ahal izango ditugu.

**Herrian badago zerbitzuen inguruko hutsune bat, harategia eta arrandegia, esaterako. Zer egin dezake udalak?**

Gai hau askotan aipatu izan da baztarretan. Momentu honetan, Ongizate batzordea gaia lantzen ari da, hilero egiten ditugun batzorde irekietan, aukerak identifikatu eta gauzatzeko asmoarekin.

**Aurreko agintaldian ez bezala, azkeneko honetan, EH Bilduko**

**Epe motzean ez da etxe berririk eraikitzea aurreikusten.**

**Udalak bi pisu ditu alokairu sozialerako; eta gaur egun bakarra dago beteta.**



**5 eta EAJko 2 zinegotzi izan dira udalean. EAJkoak ez dira herrikoak, baina EH Bilduko zerrendan ere bada herrian bizi ez denik. Zein izan da talde bakoitzaren ekarpena?**

2015eko hauteskundeen ostean EH Bilduko 5 eta EAJko 2 zinegotzik osatu genuen udal gobernua. EH Bilduko zinegotzi bat ez da herrian bizi, baina bertan jaiotakoa da, eta herriaren inguruko jakintzak oso baliagarriak izan zaizkigu lau urte hauetan lana egiteko. Beraz, zinegotzi honek herrira begira eginiko lana nabaria izan da.

EAJko zinegotziak ez dira herrikoak, eta ez dira bertan bizi. Hau-

teskundeen ondoren, udal gobernuan ez zutela parte hartuko jakinarazi ziguten, eta horrek ekarri zigun ardura guztiak EH Bilduko 5 ordezkarien artean banatzea. Hori dela-eta, eskerrak eman behar dizkiegu udaleko ordezkari izan gabe, ardura hauek bete eta herriko dinamiketan parte hartu duten herritar guztiei. Zuei esker lortu dugu herrira begirako helburuak eta ekin-tzak aurrera eramatea.

**Zergatik ez da herriaren despropanizazioa egiten eta Gas Naturalera aldaketa egiten, jakinda askoz ere gutxiago kutsatzen duela eta merkeagoa dela?**

Egia da gutxiago kutsatzen duela eta merkeagoa dela, baina gas naturalaren hodia ez da itsasondotik pasatzen. Altzagarate ingurutik Ordiziara iristen da, eta enpresa honek ez du inolako interesik azaldu hemen aldaketak egiteko.

**Ordiziako kiroldegiak gehiago kobratzen digu bertan bizi ez garenoi. Zergatik ez dago Itsasondoko Udalaren aldetik laguntza bat hori konpentsatzeko eta, bide batez, kirola sustatzeko?**

Lehendabiziko aldia da gai hau entzun dudana, ez baita inoiz honen inguruko eskaerarik udalera iritsi. Hala ere, proposamena interesgarria eta eztabaidatzekoa dela iruditzen zait.

**Konpostagailuen inguruan, zure etxearen ate aurrean horrelakorik badaukazun eta usaina ekiditeko zer egiten duzun jakin nahiko nuke.**

Etxe aurrean, oso gertu, konpostagailu bat daukat, eta batzuetan usaina botatzen duela ezin da ukatu. Hala ere, horren arrazoia oso erraza da: herritar askok pro-

**“Eskerrak eman behar dizkiegu udaleko ordezkari izan gabe, ardura hauek bete eta herriko dinamiketan parte hartu duten herritar guztiei”**

zesu osoa egiten badute ere, hau da, organikoa bota (poltsarik gabe) eta ondoan dagoen ontzitik estrukturatearekin estali, oraindik, beste batzuek organikoa poltsatik atera gabe botatzen dute. Organikoak bere prozesua hasten duenez, honek sortzen du usaina.

Beraz, gogoratu: organikoa poltsarik gabe bota behar da konpostagailura; eta, ondoren, estrukturatearekin estali behar da.

Hala eta guztiz, mantenurako aukera ezberdinak probatzen ari gara eta horrelako arazoak ekiditea dugu helburu.

### **Baserriak zer?**

Udalaren lanetako bat etxeetarako eta behar guztietarako azpiegiturak mantentzea da. Baserritarrek hala eskatuta, bideen gaia izan da urte hauetan landu dena. Hainbat konponketa eta hormigoitze egin dira behar gehien zegoen lekuetan, eta bi agiri onartu dira: ibilgailu astu-ekin udal herri-bide eta baso-bideen erabilera arautzeko Udal Ordenantza eta Herri-bide publikoen inbentarioa.

Orain, baserri guztiak sareko urez hornitzeko eta ur-hartuneak (hidranteak) jartzeko ahaleginetan ari gara. Hori datozen urteetan gauzatu delakoan gaude.

**Etxebizitza: etxe berriak erosi nahiz alokatzeko aukera gutxi dago Itsasondon. Berriak eraikitzeko aukerarik ikusten al da? zein eremutan? Babes ofizialekoetarako aukerarik ba al dago? Eta pentsatu al da Etxe-bide eta Alokabide bezalako programekin bat egitea?**

Etxeak alokatzeko zailtasunak daukela badakigu, baina saltzeko oraindik badaude, beraz, epe motzean ez da berririk eraikitzea aurreikusten.

Alokairuaren kasuan, herriko



etxez gain, udalak bi pisu ditu alokairu sozialerako; eta gaur egun bakarra dago beteta.

**Elbarrituentzako komun publikoak noizko? Aukerarik badago?**

Gaur egun, Itsasondon ez daukagu komun publikorik, baina herritarrek udaletxeko beheko solairukoak erabili ditzakete, elbarrituentzat ere prestatuta baitaude.

**Zenbat diru irabazten du alkateak?**

Egun, 221,86€ kobratzen ditut hilean, astean lau orduko lanaldian. 2017ko otsaileko udalbatzan hartu zen erabakia, ordura arte ez bainuen ezer kobratzean.

**Zer gertatu zen otsailaren 23an, Gipuzkoako eskolarteko ziklokros txapelketan, abisurik pasa gabe errepidea mozteko?**

Otsailaren 22ko arratsaldera arte ez genuen antolatutakoaren inguruko inolako baimenik jaso eta beraz, denbora aldetik ez genuen aukerarik izan herritarrei abisurik pasatzeko.

Hau kontuan izanda, errepidea, probak irauten zuen bitartean, itxita egon zen, baina premiazko beharrei irtenbidea ematen saiatu ginen.

Etorritako jendearen erantzuna eta izandako emaitza oso positiboki baloratzen ditugu; baina, aldi berean, sortutako eragozpenengatik barkamena eskatzeko aprobeztatu dugu. ■



# Hamar programa gomendagarri zure windows ordenagailuarentzat

*Ordenagailuei eta teknologiari buruzko aldizkari eta webgune askok artikulu honetan jaso ditugun programak gomendatzen dituzte. Dena den, doako eta ordainpeko programak ez daude banatuta.*

**O**rdenagailuei buruz hitz egiten duten aldizkari eta webgune gehienak ados jartzen dira ordenagailuan beharrezkoak diren programei buruz. Beraz, webgune eta aldizkari horiek gehien gomendatzen dituzten programak zerrendatuko ditut. Ziurrenik gehienak ezagutuko dituzue, baina, halere, bateren bat interesgarria izan daitekeela espero dut.



**Google Chrome**  
Gehienek ezagutuko duzue. Googlek, aspaldi, Internet nabigatzailea atera zuen. Gainera, gaur egungo Android mugikorreier esker, nabigatzaile honi gehitu zaizkio hainbat osagarri. Adibidez: Google Maps, Drive, Gmail, Google-Traductor... tresna horiek ikusi eta erabili ditzakegu nabigatzaile honekin, berarekin batera baitatort.



**Microsoft Office**  
Seguruena ofimatika arloan gehien erabiltzen den programa Microsoft Office izan da. Esan beharra dago programa hau ez dela doakoa. Bertan ikusi ditzakegu lanerako hainbat tresna, hala nola, Word, Access, Excel, Power Point etab. Hala ere, doako beste aukera bat dago, Open Office izenekoa. Microsoft Office-ren antzeko itxura du, baina software askekoa da. Beraz, azken hau ere oso gomendagarria da dirua gastatu nahi ez duten erabiltzaileen zako.



**VLC Media Player**  
Programa honek balio du multimediazko fitxategiak ikusteko. Hain zuzen, bideoak ikusteko dago pentsatuta, nahiz eta musika eta argazkiak entzuteko edo ikusteko ere balio duen. Normalean, zuten ordenagailuaren Windows-arekin batera, Media Player Classic edo Windows-en erreproduzitzailea izango ditzuzue. Baina VLC-ek daukan abantaila da deskargatutako pelikula, serie edo bideo asko erreproduzitzeko ahalmena duela. Besteak, berriz, ez dira ikusten, akats horiek betidanik ezagunak izan diren "codec"-en eruz dira. VLC-k jadanik ezagutzen diren "codec" gehienekin dator, beraz, arazo gutxi sortzen du. Gainera, funtzio asko ditu, azpitu-luak jartzeko aukera, 3D-an jartzeko aukera eta abar, baldin eta ikusten ari garen pelikula aukera horiekin etortzen bada. Doako programa da.



### CCleaner

Seguruena zere-  
rendako ezezaguna izango da.

Baina ziur ikusi izan duzuela ordenagailuren batean instalatuta. Programa hau hainbat produktu pakete-tan etortzen da, horietako bat doakoa da. Doako paketearekin nahikoa da zuen etxeko ordenagailuentzako. Programa horren eginkizuna da zuen ordenagailuaren disko gogorrean sortu daitezkeen fitxategi tenporalak, desinstalatutako programen fitxategiak (nahiz eta desinstalatuta egon, gure ordenagailuan gelditu direnak), "malware" etab. fitxategiak ezabatzen ditu. Hau da, garbiketa egiteko programa bat da. Garbiketa honi esker, gure ordenagailuaren lan kapazitatea hobetzea edota berreskuratzea da.



### WinZip

Dagoeneko WinZip ez da asko erabiltzen, nahiz eta .ZIP fitxategiak oraindik ohi-

koak diren. Gehienok jakingo duzue zertarako balio duen programa honek. Fitxategiak konprimatzeko balio du. Egia da WinZip izan zela arrakasta gehien izan zuen programa, baina atzean gelditu da WinRAR atera zenetik. WinZip-ek arazo bat du: .ZIP fitxategiak deskonprimatzeko aukera soilik ematen du. WinRAR-ek, berriz, .ZIP, .RAR, .TAR, .ISO eta hainbat fitxategi mota deskonprimatzeko aukera ematen du. Beraz, nire gomendioa da WinRAR edukitzea, nahiz eta biak diren doako programak.



### Avast Free Antivirus

Avast-en doako antibirus paketea onenatariko bat da. Egia da funtzio batzuk ordaindu beharreko pakete-tan daudela; adibidez, firewall, spam eta kaltegarri izan daitezkeen korreo kontrola, segurtasun kopiak etab. Dena den, eginkizun horiek Windows berarekin egin daitezke. Beraz, Avast Free Antivirus-en birus blokeoarekin nahikoa izango litza-teke zuen ordenagailua birusengatik babestuta egoteko.



### Spotify

Musikari errepro-  
duzitzeko mun-  
duko programarik famatuena Spotify dugu. Dakizueenez, Spotify-k bi aukera ematen ditu. Doakoa, abesti tarteetan iragarkiekin, eta ordaindutako modua (albisterik gabe, eta Internetera konektatu gabe ere, musika entzuteko aukera ematen duena).



### Adobe Photoshop

Argazkiak edita-  
tzeko programa ezagunenetakoa da. Programa hau ez da doakoa, erosi egin behar da. Hala ere, tresna oso ona eta gomendagarria da zuen argazkiak editatzeko. Adobe-k multimedia arloan lana egiten du, eta esparru horretako programak sortzen ditu; hala nola, Photoshop-a. Dena den, bideoak editatzeko, kartelak diseinatzeko, webgunek egiteko... programak ditu. Adibidez, Premiere, Illustrator, DreamWeaver...



### CrashPlan

Hau ere ezezagun samarra da. CrashPlan-ek doako pakete bat du, baina publizitate askorekin. Hala ere, bere eginkizuna nahiko ondo egiten du. Zure ordenagailuaren segurtasun kopia bat egiten du, eta kopia hori beste disko gogor batean edo USB baten nahiz DVD batean grabatzeko aukera ematen du. Hala ere, esan beharra dago Windows-ek 10 segurtasun kopia egiteko aukera ematen dituela, beraz, gaur egun ez da gomendatzen halakoak instalatzea, oso onak ez badira berriztatzen.

### Launchy

Harrিতuta utzi nau azken programa honek. Bere eginkizuna da sagua ahal den gutxienean erabiltzea. Launchy, azken finean, barra txiki bat da; bilatzaile bezala funtzionatzen du, eta fitxategien izena jarriz, aurkitu egiten ditu. Hau da, Windowseko lupa edota "Cortana" izango balitz bezala. Niretzako ez da oso funtzionala, baina halako zere-  
rendetan askotan azaltzen den doako programa bat da.


Dagoeneko hauek dira gehien erabiltzen diren 10 programak. Ziur-  
nik ez dituzue denak izango, baina, ziur aski, hauetatik gutxienez bi edo gehiago erabili izan dituzue.■



## Marcela Averio

*1990an jaio zen, Argentinan. Gaztea izan arren, hainbat lekutan bizi izan da, eta Itsasondora etorri aurretik, urtebetez Lazkaon bizi izan zen. Herri txikietan bizitzea du gogoko, aitzitik, Itsasondoren kasua aztertuz, errepide nagusia horren gertu izateak balioa kentzen dio herriari, bere ustez.*

*Bikotekidearekin, haurrarekin eta bi zakurrekin bizi da. Horiek guztiak ikustean, aurreko keinua eraldatzen zaio. Aisirako denbora familiarrean igarotzea gustatzen zaio.*



### **Noiz etorri zinen Itsasondora?**

2017ko urrian.

### **Non bizi zinen lehen?**

Azken urtea Lazkaon; eta aurrekoa, berriz, Zumarragan.

### **Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?**

Nahi genuen etxea aurkitu genuelako.

### **Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?**

Itsasondora iritsi bezain laster, nire etxearen atarian aparkatu nuen, eta bertan ikusi nuen gutxienez denda bat bazuela herriak: Lurdes janari denda.

### **Zer lanbide duzu?**

Zerbitzaria naiz.

### **Lazkaoko zeren falta sumatzen duzu?**

Egia esan ez dut ezer ere ez faltan sumatzen, tren geltokia ere badauka-eta Itsasondok.

### **Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?**

N1 errepidea ez dut gogoko.

### **Eta zer duzu gustuko?**

Lasaitasuna eta inguruko herriei ongi komunikatuta dagoela.

### **Zein zaletasun dituzu?**

Nire bikotekide, seme eta zakurrekin paseatzera joatea gustatzen zait.

### **Janari bat?**

Haragia.

### **Itsasondo edo Goierriko txoko bat:**

Oiangu.

### **Amets bat?**

Seme-alaba asko izatea.

### **Jaso duzun oparirik bereziena?**

Martin, gure semea.

### **Zer da gustatzen zaizuna?**

Martinekin denboraz gozatzea.

### **Zerk sortzen dizu irribarrea?**

Familia giroak.

### **Itsasondon biziko ez bazina?**

Beste herri txiki batean biziko nintzateke. ■

## Gipuzkoako eskolarteko en lehen ziklo krosa

**P**asa den otsailaren 23an Gipuzkoako Eskolarteko txirindularitzako denboraldiari hasera eman zitzaion, orain arte Gipuzkoan egin gabe zegoen proba batekin, "ziklo kroseko" proba batekin. Zalantza handia zegoen zenbat partaide ausartuko ziren proban parte hartzera, eta mendi bizikletakoak erreferentziatzat hartuta, 100 lasterkari inguru izatea espero zen. Proba Gipuzkoako alebin eta infantilei zuzendua zegoen, baita Goierri-Tolosaldeko benjaminei ere. Probaren antolakuntza Itsasondoko Ijittu Kirol Elkartearen eta Goierriko Txirindularitza Bultzatuz-en ardura izan zen, eta herriko hainbat pertsonak ere lagundu zuten dena ongi irten zedin.

Ibilbidea Bide Arte paretik abiatzen zen behe-arrantz. Ondoren, 900 metroko ibilbide sigi sagatxua egiten zuten, Altuna Etxea eta Jasoren arteko lur eremuan, eta errepidera irten eta gero mediku etxeraino etortzen ziren, bertatik beheko kaletik irteera puntura itzuliz. Ibilbideak, orotara, 1.800 metro zituen. Txirindularien mailaren arabera, itzuli kopuru desberdina eman zitzaion. Jende-are asko gustatu izan zitzaion ibilbidea; eta, oro har, oso segurua zela esan zuten denek.

Azken egunetan eguraldia lagun izanik, lokatz gutxi zegoen, eta ibilbidea arriskutsua ez zela



argi erakutsi eta gero, Goierriko Txirindularitza Bultzatuz-eko ki-deek prestatutako bideo batzuen bitartez, espero zena baino askoz ere jende gehiago azaldu zen Beko Kalera.

Jende kopurua zela eta, lehenengo bi sailkatze proba egin ziren alebin mutilen artean (100 alebin baino gehiago azaldu baitziren), eta beste bi proba infantil mutilen artean (hauek ere ia 100 txirindularietara iritxi ziren). Zirkuitua horrenbeste txirindulari-

rentzako nahiko estua geratzen zen, eta horregatik egin behar izan ziren sailkatze probak.

Sailkatze proba horien ostean benjamin neska-mutilen finala egin zen. Horren ondoren, alebin mutilena; gero, alebin eta infantil nesken proba bateratua, eta amaitzeko infantil mutilena.

Guztira ia 300 partaide izan ziren arratsaldean, eta tartean hiru itsasondotarrek parte hartu zuten: Manex Aldasorok, Enara Telleriak eta Oier Telleriak. Zorionez, ez zen inor larri zauritu.

Nahiz eta lasterketen artean ibilgailuak mugitzeko aukera eman zen, antolakuntzak sentitzen du jende-are sortutako eragozpenak. Datorren urteari begira, aurten eginiko hanka-sartzeak saihesten saiatuko direla esan dute, eta eskerrak eman nahi dizkiote udalari, industrialdeari eta beste hainbat pertsonari, emandako laguntzagatik. ■



## ***EH Kolektiboa***

**E**uskal Herriko hainbat txokotatik etorritako EH kolektiboko kideek Itsasondon egin zuten elkartearen 12. topaketa.

Agroekologia oinarri hartuta, goiz eta arratsaldean bildu ziren eta tartean, Kaxintanen bazkaltzeko parada izan zuten. Produktu ekologikoen prestatutako bazkari ederra!

Topaketa aberasgarria izan zen, esperientzia ezberdinak partekatuzko parada izan zen, eta aurrera begirako erronkez ere aritu ziren. ■



## ***Mendi astea***

**E**guraldia medio, ibilaldia beste baterako atzeratu bagenuen ere, mendi astearen baitan antolatutako ekintzak zinez interesgarriak izan ziren.

Goierriko mendizaleek eman zioten irekiera "Amets gauzatua" erakusketa eta ikusentzuzkoarekin. Hamar urtetan egin dituzten iraupen luzeko edo etapa askoko bederatzir ibilaldietan jaso diren argazki batzuk (180 argazki) ikusiko ziren erakusketa honetan eta Itsasondoz gain, Idiazabal, Zaldibia, Lazkao, Basain, Ordizia, Segura eta Ataunen ere egon da ikusgai.

Itxiera, berriz, Joseba Iztuetaren mendizale gabi-riarraren eskutik izan zen. "Denbora izeneko leku bat" dokumentalean Kirgizistango Lenin eta Khan Tengri mendietara eginiko bakarkako igoeretako gogoetak, sentsazioak eta irudiak bildu ditu, eta aurrez aurreko narrazioarekin eta gitarraren laguntzarekin ederra izan zen emanaldia.

Honekin amaitu zen aurtengo mendi astea. ■





## Martxoak 8

**I**tsasondoko emakumeak ere bat egin zuten “heteropatriarkatuari planto!” lemapean mugimendu feministak martxoaren 8rako deitu zuen greba deialdiarekin.

Goizean goizetik kazeroladarekin esnatu zen eguna, ondoren tailerrak egin ziren eta bazkalondoren, dokumental emanaldia izan zen. Arratsaldean herria apaindu eta Ordiziara abiatu ziren emakumeak, Goierri mailako manifestaziora batzeko.

Jendetza elkartu zen Ordiziatik Lazkaorako manifestazioan, eta amaieran Itsasondoko batukadak alaitu zituen manifiaren azken me-troak. Mundiala izan zen! ■



## Martxoak 9

**O**stiraleko grebaren ondoren, ospakizun eguna izan zen larunbata. Eguerdian batukadaren laguntzarekin herrian zehar ibili ginen dantzan eta bazkaria Arbelaitz elkartearen izan genuen.

50 emakume inguru izan ginen bazkaria eta elkar-teko bazkide gizonezkoen eskutik, bazkari mundiala gozatu genuen. Bazkalondorena berriz, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariekin igaro genuen. Emakumeek asmatutako gai ezberdinen inguruan abestu zuten eta beste behin ongi frogatu zuten beraien bertsotarako gaitasuna.

Eguna ez zen hemen bukatu eta konturatzerako batzuei ordu txikietan iritsi zitzairen erretiratzeko garaia. ■



( natura )

## Flammarion-en grabatua: kristalezko esferatik ihes

**G**rabatuko esploratzaileak lurrraren ertzerira iritsi; eta, esferaren beheko aldean makurtuta, unibertso ezagunaren beste aldeko munduari begiratzea lortzen du, zeruetatik haratago dagoen makineria kosmikoa-ren gurpilak, lainoak, suteak eta eguzkiak arakatzuz.



"L'Atmosphère: Météorologie Populaire" liburuko marrazki ezagun bat da, eta haren egilea Nicolas Camille Flammarion (1842-1925) da, Frantziako Astronomia Elkartearen sortzailea eta zenbait libururen egilea: astronomiari eta zientziari, zientzia fikzioari eta ikerketa psikikoei buruzkoak.

Irudi hau Erdi Aroko kosmologiaren ideiak irudikatzen erabili da askotan, kristalezko esfera batek lurra lau erakusten duelako. Garai hartan munduaren muga aurkitu zuten monje eta santuen kondaira asko zabaldu ziren. Orduan zioten ustez lurra ahokatu eta izarrek zintzilikatzeko balio zuen esferaren ertzearaino iritsi zirela.

Flammarion grabatua ezagutza zientifikoaren edo mistikoaren inguruko obretan maiz agertzen zaigu, mundu ezagunetik harago zerbait berria ikusi nahiaren ideia. Berak ere hala dio: "Gure arbasoek pentsatzen zuten bobeda urdin hau zela unibertsoaren muga, begiak erakusten dituzten moduan; baina, ikusten ditugun mugak benetakoak direla sinestea, zeta-harrak Unibertsoa bere gorputza biltzen duen sarera mugatzea bezain zentzuzkoa da.

Fizio galaktikoko telesail batean, humanoideak bere egileetako bati esaten dion bezala: "Zure bidaia guztietan izar supernobarik ikusi al duzu? Ez? Nik bai. Izar bat lehertzen ikusi nuen, eta unibertsoa eraikuntza-blokeak eta beste bizitza batzuk muga guztietatik kanpo bidaltzen ikusi nituen. Supernoba. Sorkuntza bera. Eta badakizu nola hauteman nuen unibertsoa gertakari ospetsu hori? Nire garezurreko gelatinazko kizkur barregarri hauekin. Espektrorik elektro-magnetikoaren zati txiki bat hautemateko diseinatutako begiekin. Aireko bibrazioak soilik entzuteko diseinatutako belarriekin. Baina nik gamma izpiak ikusi nahi ditut, X izpiak entzun nahi ditut eta materia iluna usaindu nahi dut. Ikusten al duzu zer zentzugabe naizen?"

Burbuila batean harrapatuta jarraitzen dugu, ulertzen ez dugun munduari so. Gure zentzumeneren mugak eta garunaren funtzionamenduak zerbitzu ona eskaintzen digute orokorrean, baina honekin ez digute asko laguntzen.

Gauzak gehitu eta hutsuneak betetzeaz gain, gure burmuinak entzuten, ikusten eta sentitzen duguna iragazi eta errealitatearen gutxi gorabeherako bertsioa ematen digu. Errealitatea dela uste duzuna, zure buruak esaten dizuna besterik ez da. Errealitatea konplexuegia da, eta gure burmuina hura iragazi beharrean aurkitzen da, gure ahalmenak gaintzen ez ditzan.

Hala ere, gizakiak ezaugarri nagusiren bat badu, orduan eta orain, muga berriak zeharkatzeko grina da, irudia lekuko. ■

**Iñaki Aizpuru**



( errezeta )

## Kaneloiak

### Osagaiak

- 12 kaneloi xafila
- 4 lagunentzat osagaiak:
- Tipula eta erdi
- Kilo erdi bat atun, olio meharretan
- Litro erdi etxeko tomate frijitu
- 3 arrautz egosi
- Oliba olio
- 4 pikillo piper
- Gatza eta piper beltza

### Bexamelarentzat:

- Litro erdi bat esne
- 25 gr. gurin
- 25 gr. irin
- Gatza, piper beltza eta intxaur muskatua

### Bexamelaren prestaketa:

Gurin eta irina nahastu. Esne beroa gaineratu, eta egosi loditu arte. Gatza, piper eta intxaur muskatua gaineratu, norberaren gustuaren arabera.

### Prestaketa:

Juliana erara moztutako tipula erregosi oliotan. Kolore pixka bat hartzen hasten denean, puska txikitik moztutako piperra, pikatutako arrautz egosia eta atuna gaineratu. Gatza eta piper beltza norbere gustura bota, eta tomatearekin hamar bat minutuz eduki su motelean.

Pasta xafiak egosi, eta lasagna osatu erretilu edo labeko kazuela batean.

Oinarri bezala, azpian tomate pixka bat jarri, eta gainean txandakatu xafiak eta aurrez prestatutako betegarria. Amaitzeko, guztia bexamelez estali, eta gazta arraspatuarekin labean sartu hamar bat minutuz, 180 gradutan. ■



**Juanan Jiménez**  
**Altamira jatetxea. Ordizia**  
**677 293 697**

## Euskararen atala

### Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Neska modernak dira.	Neska modernoak dira.
Trenagatik zapalduta hil zen.	Trenak zapalduta hil zen.
Nik berdina uste dut.	Nik gauza bera uste dut.

## Euskaraz bai, umorea ere bai

Guardia zibilaren kontrol batean:

- Edan al duzu alkoholik?
- Bai, bai...
- Asko???
- Ezkontza batetik nator eta... hasi aurretik hiru vermouthe, bazkaldu baino lehen hiru garagardo, bazkaltzerakoan bi botila ardo ta pare bat kopa txanpan eta, gero, bukatzerakoan sei txupito eta bi Gin-Tonic!!!
- Ba al dakizu, hau alkoholemia kontrola dela???
- Eta zuk ba al dakizu kotxe hau ingelesa dela eta beste aldean dagoela nire emaztea gidatzen???

## Zenbait bitxikeria

Ba al zenekien...


- Euskaraz idatzita dauden lehen hitzak Kristo osteko I. mendekoak dira. Garai hartan euskararen eremua gaur egunekoa baino askoz handiagoa zen: iparraldetik Girona ibaiaraino, ekialdetik Andorrraraino eta hegoaldeko Burgoseraino heltzen baitzen.
- Eremu geografiko txiki batean hitz egiten bada ere, Euskarak sei euskalki ezberdin ditu; euskalkien lehen sailkapena 1863an Luis Luciano Bonaparte Printzeak egin zuen, Napoleonen ilobak.
- Erromatar Inperiotik eta latinaren inposiziotik bizirik ateratako hizkuntza bakarra da Euskara.
- Gaur egun, Autonomi Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean milioi bat lagunek hitz egiten dute euskara eta beste 500.000k ulertu.
- 182 Euskal Etxe daude lau kontinentetan banatuta eta horietako 71tan euskara eskolak ematen dira.
- Euskararen jatorria ezezaguna da, baina badakigu Iberiar Penintsulan indoeuropearra ez den hizkuntza bakarra dela, eta honen inguruan asko dira dauden hipotesiak.

## Korrika Itsasondon



## Gimnasioa Itsasondon!

Gimnasio bat egokitu nahi dugu Itsasondon! Gimnasia egiteko makina erabili gabe daukazu etxean alperrik? Prest zaude herritarrekin partekatzeko? Jarri gurekin harremanetan: [itsasondo.ongizate@gmail.com](mailto:itsasondo.ongizate@gmail.com)



### MAIATZA

- 1 Langileen eguna
- 3-4-5 Urkiko jaiak
- 7-14-21 eta 28 Tipi Tapa paseoa, 17:00etan plazan
- 6 Lurralde eta hirigintza lantaldea, 19:00etan udaletxean
- 8 Jaietako batzordearen lehen bilera
- 9 Ongizate lantaldea, 18:00etan udaletxean
- 12 Herri Urrats
- 23 Jubilatutuen eguna
- 25 Errepresaliatuen eguna
- 26 Hauteskundeak
- 29 Memoria tailerra, 18:00etan jubilatuen elkartearen  
Jaietako batzordearen bigarren bilera, 19:00etan udaletxean
- 30 Bingoa, 17:00etan jubilatuen elkartearen

### EKAINA

- 4-11-18 eta 25 Tipi Tapa paseoa, 17:00etan plazan
- 9 Eskola txikien festa
- 3 Lurralde eta hirigintza lantaldea, 19:00etan udaletxean
- 5 Jaietako batzordea, 19:00etan udaletxean
- 6 Ongizate lantaldea, 18:00etan udaletxean
- 12 Harrera Eguna
- 15 Herri Eguna
- 20 Errefuxiatuen eguna  
Musika eskolako kontzertua
- 21 Eskolako Eguna
- 21-22 Garagardo azoka
- 23 San Joan sua
- 26 Memoria tailerra, 18:00etan jubilatuen elkartearen
- 27 Bingoa, 17:00etan jubilatuen elkartearen
- 28 Gay, lesbiana, transexualen eguna

## Telefono interesgarriak

<b>Udaletxea</b>	<b>943 881170</b>
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
-----	
<b>Haurreskola</b>	<b>943 164831</b>
<b>Herri Eskola</b>	<b>943 887704</b>
<b>Arbel-Aitz Elkartea</b>	<b>943 881339</b>
<b>Lurdes Janari Denda</b>	<b>943 885236</b>
<b>Arrastoa Botika</b>	<b>943 882148</b>
<b>Medikuarenean Txanda Hartzeko</b>	<b>943 007635</b>
<b>Kaxintane Taberna</b>	<b>606 756551</b>
<b>Nautiko Taberna / Izaskun Hotela</b>	<b>943 880012</b>
<b>Izaskun Ileapaindegia</b>	<b>943 160285</b>
-----	
<b>Sasieta</b>	<b>943 161555</b>
<b>Traste Zaharrak</b>	<b>943 161590</b>
<b>Taxi (Ordizia)</b>	<b>943 881486</b>

## itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (( (42. zk ))) Maiatza 2019

### Ale honetan parte hartu dutenak:

Asier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Bizi Nahi jubilatutuen elkarte  
Eskolako haurrak  
Gazteleku  
Haurreskolako hezitzaileak  
Iñaki Aizpuru  
Iñaki Telleria  
Itziar Pildain  
Izaro Intsausti  
Juanan Jiménez  
Maddi Alberdi  
Maider Saenz de Navarrete  
Maite Lasa  
Mikel Mendizabal  
Unai Aldasoro

itsasondo2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

[itsasondo2.0@itsasondo.eus](mailto:itsasondo2.0@itsasondo.eus)

Lege gordailua:  
SS-297-2010

ISSN:  
2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia



GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA  
IRAILEAN IZANGO  
DUZUTELA ETXEAN